



AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILBURUARENA, ESPETXE-ARLOKO
LANAREN ETA IKERKETAREN FRANCISCO
JAVIER GÓMEZ ELOSEGUI SARIA
ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA
EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN
DIONA.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS, POR LA QUE SE
ACUERDA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO
PARA LA ELABORACIÓN DEL PROYECTO
DE DECRETO POR EL QUE SE REGULA EL
PREMIO «FRANCISCO JAVIER GÓMEZ
ELOSEGUI» AL TRABAJO Y LA
INVESTIGACIÓN EN MATERIA
PENITENCIARIA.

«Francisco Javier Gómez Elosegui» sariaren helburua da jendaurrean aintzatestea eta saritzea beren ibilbide pertsonal edo profesionalarekin giza eskubideen defentsan eta espetxeetako birgizarteratze-lanetan aparteko merezimenduak egiaztatzen dituzten pertsonak edo kolektiboak, bai eta espetheen diziplina anitzeko ikerketa sustatzea ere. Francisco Javier Gómez Elosegui espetxeetako psikologoaren memoria ohoratzen du. Psikologo hori nabarmendu zen espetxeak humanizatzeko, birgizarteratzeko eta presoen giza eskubideak errespetatzeko konpromisoagatik, eta ETAK hil zuen 1997ko martxoaren 11n.

La finalidad del Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui» es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que, con su trayectoria personal o profesional, acrediten méritos extraordinarios en materia de la defensa de los derechos humanos y en las tareas de reinserción y resocialización en el ámbito penitenciario, así como fomentar la investigación multidisciplinar penitenciaria. Su denominación honra la memoria de D. Francisco Javier Gómez Elosegui, psicólogo de instituciones penitenciarias que destacó por su compromiso con la humanización de las prisiones, la reinserción y el respeto de los derechos humanos de las personas reclusas, y que fue asesinado por ETA el 11 de marzo de 1997.

Sari hau 2003an sortu zen Eusko Jaurlaritzan. 2023ra arte, deialdia urtero egiten zen, justizia-arloan eskumena duen saileko titullarrak emandako agindu baten bidez. Data horretatik aurrera, espetxe-arloko lanaren eta ikerketaren «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria sortu eta arautzen duen maiatzaren 16ko 68/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautu zen.

Este premio comenzó su andadura en el Gobierno Vasco en 2003. Hasta 2023, su convocatoria se realizaba anualmente mediante Orden dictada por la persona titular del Departamento competente en materia de Justicia. A partir de esa fecha, su regulación se articuló conforme a lo dispuesto en el Decreto 68/2023, de 16 de mayo, por el que se crea y regula el premio «Francisco Javier Gómez Elosegui» al trabajo y la investigación en materia penitenciaria.

Dekretu horrek Bigarren Xedapen Gehigarrian ezartzen duenez, Dekretuak berak berariaz arautzen ez duen guztian, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.

El mencionado Decreto establece en su Disposición Adicional Segunda, que en todo lo no regulado expresamente en el propio Decreto, será de aplicación lo dispuesto en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.



Hala ere, 2023ko abenduaren 29an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea. Arau horrek indargabetu egiten ditu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), eta «Indarraldi mugagabeko oinarri arautzaileen egokitzapena» izeneko azken xedapenetako lehena jasotzen du. Xedapen hori abenduaren 20ko 8/2024 Legeak aldatu zuen, eta honako hau ezartzen du: *«Indarraldi mugagabea duten laguntzen eta dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak lege honen xedapenetara egokitu beharko dira, legea indarrean jartzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen. Epe hori bukatutakoan egokitu gabe badaude, indargabetutzat joko dira»*.

Bestalde, «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen Legearen 3.2.b) artikuluko dirulaguntza izaera izatetik salbuetsita badago ere, arau horren 7. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak errespetatu beharko dira, hala nola publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Horrenbestez, onuradunak eskatu gabe ematen den saria izanda ere, 3.2.b) artikulua interpretatzeak ez du baztertzen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen Legearen Azken Xedapenetatik Lehena aplikatzea.

Horregatik guztiatik, beharrezkoa da «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu berri bat onartzea, helburu bikoitzarekin: alde batetik, oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen Legean xedatutakora eta Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez ezarritako Jaurlaritzaren egitura berrira egokitzea (18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardunarloak finkatzen dituen), eta, bestetik, sariak kudeatzeko prozeduran hobekuntzak sartzea, segurtasun juridikoa, administrazio-

No obstante, el 29 de diciembre de 2023 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones de Euskadi, norma que deroga el título VI y el capítulo III del título VII del texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, e incorpora una Disposición Final Primera «Adaptación de las bases reguladoras de vigencia indefinida», modificada por la Ley 8/2024, de 20 de diciembre, que establece: *«Las bases reguladoras de ayudas y subvenciones de vigencia indefinida deberán adaptarse a lo dispuesto en la presente ley en el plazo de veinticuatro meses a contar desde la entrada en vigor de ésta, transcurrido el cual, sin haberse materializado dicha adaptación, habrán de entenderse derogadas»*.

Por otro lado, si bien el Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui» se encuentra excluido de la consideración de subvención por el artículo 3.2.b) de la Ley Reguladora del Régimen de Subvenciones, sí deben de respetarse los principios generales previstos en el artículo 7 de dicha norma, tales como publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación. Así pues, aunque se trate de un premio que no permite la previa solicitud de la persona beneficiaria, la interpretación del artículo 3.2.b) no excluye la aplicación de la Disposición Final Primera de la Ley Reguladora del Régimen de Subvenciones.

Por ello, resulta necesario aprobar un nuevo decreto regulador del Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui» con una doble finalidad, por un lado, adaptar las bases reguladoras a lo dispuesto en la Ley Reguladora del Régimen de Subvenciones y a la nueva estructura del Gobierno establecida mediante el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, sobre creación, supresión y modificación de Departamentos y determinación de sus funciones y áreas de actuación y, por otro, incorporar mejoras en el procedimiento de gestión del premio, reforzando la seguridad jurídica, la eficiencia administrativa y la transparencia en la tramitación.

eraginkortasuna eta gardentasuna indartuz izapideetan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan (aurrerantzean, EAE), ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak (aurrerantzean, XOEPL), xedapen orokorrak egiteko prozedura zehazten du, eta prozedura hori Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Administrazio Orokorrak egiten dituztenei aplikatuko zaie.

Ondorio horietarako, xedapen arautzaile orokortzat hartzen dira, edozein gai dela ere, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen dutenak eta ordenamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak dituztenak, epe jakin edo zehaztugabe batean hainbat egintzaren oinarri izanik. XOEPLren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dira, eta agindu horretan adierazitako gutxieneko edukia izan beharko dute.

lido horretan, aipatutako 18/2024 Dekretuaren arabera, Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagozkio *«espetxe-establezimenduak eta, bereziki, haien antolaera, funtzionamendua eta espetxe-legedia betetzea, legedi horrek Espetxe Administrazioako organo zentraleri ematen dizkien ahalmenen egikaritzea bere gain hartuta»*.

Bere egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitutako eskumenen artean dago zigorrak, segurtasun-neurriak, erregimen irekia, baldintzapeko askatasuna eta tratamendurako eta esku hartzeko programa espezifikoak betearaztea, kudeatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea. Beraz, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuak du prozedura hasteko agindua emateko eskumena.

Horregatik guztiagatik, XOEPLren 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, agindu hau onartzen da,

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante CAE), la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante, LPEDCG) determina el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general que se aplicará a aquellas que elaboren el Gobierno Vasco y la Administración General de la CAE.

A estos efectos, se entienden por disposiciones normativas de carácter general las que, cualquiera que sea la materia sobre la que versen, adoptan la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, y contienen normas jurídicas que innovan el ordenamiento jurídico, sirviendo de fundamento para una pluralidad de actos durante un lapso determinado o indeterminado. De acuerdo con lo establecido en el artículo 12.1 LPEDCG, éstas se iniciarán por orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen y deberán tener el contenido mínimo que se señala en la misma.

En este sentido, el mencionado Decreto 18/2024, atribuye al Departamento de Justicia y Derechos Humanos la competencia en materia de *«establecimientos penitenciarios, en especial su organización, funcionamiento y ejecución de la legislación penitenciaria asumiendo el ejercicio de las facultades que esta atribuya a los órganos centrales de la Administración penitenciaria»*.

Entre el elenco competencial atribuido al Departamento de Justicia y Derechos Humanos por el Decreto 326/2024, de 5 de noviembre, que establece su estructura orgánica y funcional, se encuentra ejecutar, gestionar, coordinar y hacer seguimiento del cumplimiento de penas, medidas de seguridad, régimen abierto, libertad condicional y programas específicos de tratamiento e intervención. Por lo tanto, es la consejera de Justicia y Derechos Humanos la competente para ordenar la iniciación de este procedimiento.

Por todo ello, en aplicación de lo establecido en el artículo 4 LPEDCG, se aprueba la presente

«Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Lehenengoa. Erregulazioaren xedea eta helburua.

Dekretu-proiektuaren xedea da «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzea. Sari horren helburua da jendaurrean aitortzea giza eskubideen defentsan eta espetxeetako birgizarteratze-lanetan egindako lan nabarmena, bai eta espetheen diziplina anitzeko ikerketari egindako ekarpenak ere.

Aurrekoarekin batera, Dekretua Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen Legera eta Justizia eta Giza Eskubideak Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretura egokitu nahi dira.

Bigarrena. Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eskumenekoak diren jardun-arloak kontuan hartuta, egokitze jotzen da espetxe-arloko lanaren eta ikerketaren «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu berri bat onartzea.

Ekimen honen helburua da indarrean dagoen araudia Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legean ezarritako printzipioetara egokitzea, bai eta Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan definitutako Eusko Jaurlaritzaren antolaketa-egitura berrira egokitzea ere. Era berean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak txosten bat egin zuen 2025eko apirilaren 25ean, 68/2023 Dekretua aldatzeko prozedura hasteko esanez, edota, hala balegokio, dekretu hori ordeztu eta berariaz indargabetzeko beste bat emateko; aldi berean, 2025eko deialdiko oinarriak egokitzeko eskatu zuen, lehenengo azken xedapena aldatuta. Horri esker, indarrean dagoen 2025erako sariaren deialdia egin eta saria eman ahal izan da.

Orden en la que se dispone el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto, por el que se regula el Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui».

Primero. Objeto y finalidad de la regulación.

El proyecto de Decreto tiene por objeto regular la concesión del Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui», cuya finalidad es reconocer públicamente la actuación destacada en materia de defensa de los Derechos Humanos y de las tareas de reinserción y resocialización en el ámbito penitenciario, así como las aportaciones notables a la investigación multidisciplinar penitenciaria.

Junto con lo anterior, se pretende adaptar el articulado del Decreto a lo dispuesto en la Ley de Reguladora del Régimen de Subvenciones, así como al Decreto 326/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Derechos Humanos.

Segundo. Viabilidad jurídica y material de la norma.

Habida cuenta de las áreas de actuación que son competencia del Departamento de Justicia y Derechos Humanos, se considera adecuado proceder a la aprobación de un nuevo decreto regulador del Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui» al trabajo y la investigación en materia penitenciaria.

Esta iniciativa responde a la necesidad de adaptar la normativa vigente a los principios establecidos en la Ley 20/2023, Reguladora del Régimen de Subvenciones, así como a la nueva estructura organizativa del Gobierno Vasco definida en el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari. Igualmente, la Oficina de Control Económico emitió un informe de fecha 25 de abril de 2025, en el que insta a iniciar el procedimiento para la modificación del Decreto 68/2023 o, en su caso, el dictado de uno nuevo que lo sustituya y derogue expresamente, al tiempo que interesa la adecuación de las bases de la convocatoria de 2025, mediante una modificación de la Disposición final primera, que

ha permitido convocar y otorgar el premio para el año 2025 en curso.

Aztertutako erregulazio-alternatibei dagokienez, honako hauek baloratu dira:

- 1.- Testu berri bat onartzea.
- 2.- 68/2023 Dekretua indargabetzea eta urteko deialdiak onartzea deialdiaren oinarriak onartzen dituen Aginduaren bidez.
- 3.- 68/2023 Dekretua aldatzea, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen xedapenetara zorrotz egokitzeko.

Azkenik, lehenengo aukera aukeratu da, dekretu berri bat onartzekoa, eta ez aldaketa hutsa, 20/2023 Legeak sartutako berrikuntzek eragin handia baitute honen xede den saria deitzeko eta emateko prozeduran. Era berean, baztertu egin da 68/2023 Dekretua indargabetzea eta saria deitzeko urtean ureko aginduak erabiltzea, iraupen mugagabeko oinarri orokorrak arautzeko figura juridiko egokia Dekretua dela ulertzen baita.

Justizia Zuzendaritzak dekretu berria modu eraginkorrean ezartzeko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta aurrekontu-baliabideak ditu, eta ez da karga gehigarri nabarmenik aurreikusten. Aurreko deialdien kudeaketan metatutako eskarmentuak eta prozedura finkatuak egoteak arauaren eraginkortasuna eta eraginkortasuna bermatzen dute, araua indarrean sartzen denetik.

Hirugarrena. Araugintza Planean sartzea.

Dekretua egitea ez dago sartuta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren urteko arau-plangintzan (EHAA, 50. zk., 2025eko martxoaren 13koa), baina Sariaren erregulazioa Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen Legearen xedatutakora egokitu behar delako izapidetu da.

Arau berriak irismen mugatua duenez eta antolamendu juridiko orokorrean funtsezko

Respecto a las alternativas de regulación estudiadas, se han valorado:

- 1.- La aprobación de un nuevo texto.
- 2.- Derogación del Decreto 68/2023, y aprobación de convocatorias anuales mediante Orden por la que se aprueben las bases de la convocatoria.
- 3.- Modificación del Decreto 68/2023, para adaptarlo estrictamente a las disposiciones de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre.

Finalmente, se ha optado por la primera de las alternativas, de aprobación de un nuevo Decreto, y no solamente su modificación, a la vista de que las novedades introducidas por la Ley 20/2023 tienen un impacto amplio en el procedimiento de convocatoria y concesión del premio objeto de la presente. Igualmente se ha descartado la derogación del Decreto 68/2023 y la utilización de órdenes anuales para convocar el premio, por cuanto que se entiende que la figura jurídica adecuada para regular bases generales de duración indefinida es el Decreto.

La Dirección de Justicia dispone de los recursos humanos, técnicos y presupuestarios necesarios para la implementación efectiva del nuevo decreto, sin que se prevean cargas adicionales significativas. La experiencia acumulada en la gestión de convocatorias anteriores y la existencia de procedimientos consolidados garantizan la operatividad y eficacia de la norma desde su entrada en vigor.

Tercero. Inclusión en el Plan Normativo.

La elaboración del decreto no está incluida en la planificación normativa anual del Departamento de Justicia y Derechos Humanos, publicada en el BOPV nº 50, de 13 de marzo de 2025, si bien su tramitación está justificada por la necesidad de adecuar la regulación del Premio a lo dispuesto en la Ley Reguladora del Régimen de Subvenciones.

Dado que se trata de norma con alcance limitado y sin incidencia sustancial en el ordenamiento

eraginik ez duenez, justifikatutzat jotzen da arau hori araugintza-planetik kanpo izapidetzea, XOEPLen 8.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horrek aukera ematen du Planetik salbuesteko xedapen batzuk, baldin eta xedapen horien izaerak ez badu aurretiazko plangintzarik behar, presakoak direlako, berariazkoak direlako edo araugintzan eragin txikia dutelako.

Era berean, erabaki hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluan oinarritzen da. Artikulu horrek onartzen du arauzko xedapenak arau-egutegitik kanpo izapidetzea, arrazoi justifikatuak daudenean.

Horregatik guztiagatik, Araugintza Planetik kanpoko tramitazioa guztiz bat dator legezotasunarekin, eta administrazio-eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren eta erregulazio onaren irizpideei erantzuten die.

Laugarrena. Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Arau-ekimena onartzeak espetxe-arloko lan eta ikerketari buruzko «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria sortu eta arautzen duen maiatzaren 16ko 68/2023 Dekretua indargabetzea ekarriko du.

Bosgarrena. Eraginaren ebaluazioak.

1.- Generoaren araberako eragina.

2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluak onartutako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruzko jarraibideetan (2.1.b Lehen Jarraibidea) xedatutakoaren arabera, proiektuarekin batera martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aurreikusitako generoaren araberako eraginari buruzko txostena aurkeztu behar da. Hala ere,

jurídico general se considera justificada su tramitación fuera del Plan Normativo, conforme a lo previsto en el artículo 8.4 LPEDCG, que permite exceptuar del Plan aquellas disposiciones cuya naturaleza no requiera planificación previa por su urgencia, especificidad o escasa repercusión normativa.

Asimismo, esta decisión se ampara en el artículo 132 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que admite la tramitación de disposiciones reglamentarias fuera del calendario normativo cuando concurren razones justificadas.

Por todo ello, la tramitación fuera del Plan Normativo se ajusta plenamente a la legalidad y responde a criterios de eficacia administrativa, proporcionalidad y buena regulación.

Cuarto. Repercusiones en el ordenamiento jurídico.

La aprobación de la iniciativa normativa supondrá la derogación del Decreto 68/2023, de 16 de mayo, por el que se crea y regula el premio «Francisco Javier Gómez Elosegui».

Quinto. Evaluaciones de impacto.

1.- Impacto en función del género.

Conforme a lo dispuesto en las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de hombres y mujeres, aprobadas en Consejo de Gobierno de 21 de agosto 2012, Directriz Primera 2.1.b, el proyecto debe ir acompañado del informe de impacto en función del género previsto en el artículo 20 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 del 16 de marzo. No obstante, se dará traslado a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer a los efectos de su verificación.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari helaraziko zaio, egiazta dezan.

2.- Haur eta nerabeengan duen eragina.

Dekretu-proiektuak ez du eragin zuzenik arlo horretan.

3.- Gazteen gaineko eragina.

Dekretu-proiektuak ez du eragin zuzenik arlo horretan.

4.- Irisgarritasunaren gaineko eragina.

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, proiektaturiko arauak ez du inolako eraginik arlo horretan.

Seigarrena. Eragin ekonomikoa.

Dekretu-proiektuak eragin zuzena du aurrekontuen arloan, eta XOEPLen 15.5 artikuluan araututako memoria ekonomikoaren bidez aztertu behar da.

Saria ematea ohorezko sari bat da, aintzatespen publiko bat eta diru-kopuru bat, justiziaren arloan eskumena duen sailarentzat urtero onartzen diren aurrekontuetan islatuko dena. Urteko deialdiak justizia-arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak kudeatuko ditu, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa izatea.

Zazpigarrena. Administrazio-kargak eta eragina enpresa txiki eta ertainetan.

Dekretu-proiektuak ez du eraginik enpresak sortzeko eta funtzionatzeko administrazio-kargetan, ekintzailatza-jarduera sustatzeari eta sustatzeari dagokionez.

Zortzigarrena. Idazketa egiteko arauak eta irizpideak.

XOEPLren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera:

2.- Impacto sobre la infancia y la adolescencia.

El proyecto de Decreto no tiene una incidencia directa en esta materia.

3.- Impacto sobre la juventud.

El proyecto de Decreto no tiene una incidencia directa en esta materia.

4.- Impacto en la accesibilidad.

De conformidad con lo establecido en la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, la norma proyectada no presenta incidencia alguna en esta materia.

Sexto. Incidencia económica.

El proyecto de decreto tiene una repercusión directa en materia presupuestaria que ha de ser analizada mediante la elaboración de la correspondiente memoria económica regulada en el artículo 15.5 de la LPEDCG.

La concesión del premio consiste en una distinción honorífica, en un reconocimiento público y en una cantidad dineraria, que tendrá reflejo en los presupuestos que anualmente se aprueben para el Departamento competente en materia de Justicia. Para llevar a cabo las convocatorias anuales, que serán gestionadas por la persona titular de la Dirección competente en materia de Justicia, será imprescindible contar con crédito presupuestario adecuado y suficiente.

Séptimo. Cargas administrativas e impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.

El proyecto de decreto no genera impacto en las cargas administrativas para la creación y funcionamiento de las empresas en relación con la promoción y fomento de la actividad emprendedora.

Octavo. Reglas y criterios de elaboración de la redacción.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 14 LPEDCG:

1.- Sustatzen den dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak eta aurreikusitako erregulazioaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzak, Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

2.- Dekretu-proiektua zehazteko arrazoiak eta oinarri juridikoak behar bezala azaldu beharko dira testuan.

3.- Landutako testua ele bitan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testua bi hizkuntzatan idatzita egon beharko da, aldez aurretik onartu aurretik, eta, ondoren, instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

4.- Era berean, testua idatzi behar da, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez.

Bederatzigarrena. Bidezko izapideak eta txostenak.

XOEPLen 13.1 artikuluko e) idatz-zatian xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu gaiaren eta proposatutako erregulazioaren edukiaren arabera bidezkotzat jotzen diren izapide eta txostenak.

Hasiera batean, honako izapide eta txosten hauek behar dira dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko:

1.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta XOEPLen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu-proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita, eta herritarrei berariaz gonbidatuko zaie

1.- La redacción del texto de proyecto de Decreto que se promueve se efectuará atendiendo al contenido de esta Orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista, de conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo de 11 de julio de 2023, por el que se aprueban las directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y Resoluciones.

2.- Se deberá insertar en el texto una exposición adecuada de los motivos y fundamentos jurídicos que justifican la determinación del proyecto de Decreto.

3.- El texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

4.- Asimismo, el texto debe ser redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.

Noveno. Trámites e informes procedentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 LPEDCG, la orden de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

Los trámites e informes que, en principio, se requieren para la elaboración y aprobación del proyecto de decreto son los siguientes:

1.- De conformidad con lo establecido en el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en el artículo 11 LPEDCG, con carácter previo a la elaboración del proyecto de Decreto se sustanciará una consulta pública, mediante anuncio en tablón de anuncios de la sede

honako gai hauei buruzko informazioa eman dezaten:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen ordezkotako irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekoa betez, eta egiten hasi aurretik, 2025eko abenduaren 18an, Irekia Eusko Jaurlaritzaren web plataformaren bidez (gardentasunerako, herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako plataforma), dei egin zitzaion herritarrei 15 eguneko epean, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egun horretan bertan, argitaratutako eranskinean jasotako informazioari buruz iritzia eman zezaten.

2025eko abenduaren 18an Legegunea – Euskal Araudiaren Atari Irekian argitaratu zen.

2.- Agindu honen bosgarren atalaren arabera, eta XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberrako eraginari buruzko txosten bat egin beharko da, eta Emakunderen esku jarriko da, egiazta dezan.

3.- XOEPLren 13.2 artikuluan arabera, hasteko agindu hau EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen horrek sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, hala badagokio, ekimenaren egokitasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ahal izan ditzaten.

4.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da, nahitaez. Txosten horrek, hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen

electrónica de la Administración Pública de la CAE invitando expresamente a la ciudadanía a pronunciarse acerca de la información, sobre:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

En cumplimiento de lo anterior, y con carácter previo a su elaboración, en fecha 18 de diciembre de 2025, a través de Irekia, plataforma web del Gobierno Vasco para la transparencia, la participación ciudadana y la colaboración, se invitó a la ciudadanía a que, durante el plazo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la CAE, efectuada en ese mismo día, se pronunciara acerca de la información contenida en el anexo publicado.

En fecha 18 de diciembre de 2025 se publicó en Legegunea –Portal Abierto de la Normativa Vasca.

2.- En virtud del apartado quinto de la presente Orden, y de conformidad con lo establecido en el artículo 14.4 LPEDCG, una vez redactado el texto del proyecto, se deberá de elaborar un informe de impacto en función del género, que se pondrá a disposición de Emakunde a los efectos de su verificación.

3.- De acuerdo con el artículo 13.2 LPEDCG, la presente Orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la CAE y en Legegunea. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

4.- Se elaborará, con carácter preceptivo, una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar, respecto a la Orden

organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko du, bai eta, nolanahi ere, XOEPLen 15. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den edukia ere.

5.- Dekretu-proiektua idatzi ondoren, eta dagozkion kontsulta-izapideak egin aurretik, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren aldez aurreko onarpena beharko da, XOEPLren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, XOEPLen 16.3 artikuluan aurreikusitakoa betez. Argitalpen honen data aldi berean bultza daitezkeen izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango da, baldin eta bata bestearen atzetik bete behar ez badira.

Aldez aurreko onarpenaren agindua, arau-proiektuarekin batera, Legeguneko lankidetzagunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, lege horretan jasotako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz zein gaztelaniaz zabalduko dela bermatzeko. Gainera, espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

7.- XOEPLren 16. artikuluekin bat etorriz, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira, eta denak batera eta hilabeteko epe berean egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

de inicio, cualquier aspecto que pueda ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, el contenido al que hace referencia el apartado 3 del artículo 15 LPEDCG.

5.- Una vez redactado el proyecto de Decreto, y antes de evacuar los trámites de consulta que procedan, se someterá a la aprobación previa de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 15.1 LPEDCG.

6.- El texto de la disposición que cuente con la aprobación previa se publicará en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la CAE, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 16.3 LPEDCG. La fecha de esta publicación será la de inicio del plazo de cumplimentación de todos los trámites que admitan un impulso simultáneo y cuyo cumplimiento sucesivo no sea obligado.

La orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, se publicará en el espacio colaborativo de Legegunea, de conformidad con lo establecido en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, con el objetivo de cumplir el mandato de publicidad recogido en dicha ley y garantizar la difusión del texto del proyecto tanto en euskera como en castellano. Además, se publicarán las memorias e informes que conformen el expediente.

7.- De conformidad con el artículo 16 LPEDCG, se solicitarán los siguientes informes de carácter no esencial, que se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición:

- Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, de acuerdo con lo establecido en el artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura y Política Lingüística, de acuerdo con lo establecido en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera.

8.- Dekretu-proiektuaren edukia kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da jendaurrean jartzeko izapidea, XOEPLen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.- Atendiendo al contenido del proyecto de Decreto se considera necesario el trámite de información pública, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1 LPEDCG.

Jendaurrean jartzeko izapideari dagokionez, honako jarduera hauek egingo dira:

En lo que respecta al trámite de información pública, se llevarán a cabo las actuaciones siguientes:

1) Dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Ebazpen horrek esteka bat izango du EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, eta bertan proiektuaren testua egongo da eskuragarri, interesdunek egokitzen dituzten alegazioak egin ditzaten 20 egun balioduneko epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

1) Se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la resolución por la que se somete a información pública el proyecto de Decreto. Esta resolución contendrá un enlace en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la CAE en el que estará disponible el texto del proyecto para que las personas interesadas puedan formular las alegación-es que estimen pertinentes en el plazo 20 días hábiles, a contar desde la publicación de la resolución en el BOPV.

2) Ebazpen bera, dekretu-proiekturako estekarekin batera, Irekian argitaratuko da.

2) La misma resolución, junto con el enlace al proyecto de Decreto, estará publicada en Irekia.

9.- Ez da ikusten Europar Batasunean izapiderik egin behar denik dekretu-proiektuaren aplikazio-eremua eta xedea kontuan hartuta.

9.- No se aprecia la necesidad de realizar ningún trámite ante la Unión Europea teniendo en cuenta el ámbito de aplicación y el objeto y finalidad del proyecto de Decreto.

10.- Beharrezkotzat jotzen da Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko bat egitea, XOEPLen 15.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

10.- Se considera necesaria la emisión de un informe jurídico por la Asesoría Jurídica de la Dirección de Servicios del Departamento de Justicia y Derechos Humanos, conforme a lo establecido en el artículo 15.4 LPEDCG.

11.- XOEPLen 19. artikulua arabera, nahitaezko funtsezko txosten hauek eskatu beharko dira:

11.- Conforme al artículo 19 LPEDCG, deberán requerirse los siguientes informes preceptivos de carácter esencial:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezotasun txostena, Eusko

- Informe de Legalidad del Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, en virtud de lo

Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia-eta arau-kontrolari buruzko txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta EAEko barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera. 15 eguneko epean eman beharko da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektuaren testua jasotzen denetik zenbatzen hasita, proiektuaren edukiaren arabera eskatutako dokumentazioarekin batera.

12.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak adierazita, XOEPLren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

13.- Proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokionez, XOEPLren 29.1 artikuluan arabera, arau-xedapen orokorrak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, bi hizkuntza ofizialetan, indarrean sartu eta ondorio juridikoak sortzeko.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta bereziki aplikatzekoak diren beste xedapen batzuk ikusita, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena. Justizia Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeko organo.

establecido en el artículo 11.1 del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

- Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, según lo establecido en el Capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la CAE, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la CAE. Deberá emitirse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción en la Oficina de Control Económico, del texto del proyecto de disposición normativa acompañado de la documentación requerida en función de su contenido.

12.- Una vez finalizada la tramitación del proyecto de norma, y con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento, reseñando los antecedentes y trámites realizados, conforme a lo establecido en el artículo 24.2 LPEDCG.

13.- En cuanto a la publicidad y publicación del proyecto, conforme al artículo 29.1 LPEDCG las disposiciones normativas de carácter general habrán de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, en los dos idiomas oficiales, para entrar en vigor y producir efectos jurídicos.

Vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de general y especial aplicación,

RESUELVO

Primero. Ordenar el inicio del procedimiento de elaboración del Proyecto de Decreto por el que se regula el Premio «Francisco Javier Gómez Elosegui».

Segundo. Designar a la Dirección de Justicia como órgano de la tramitación del procedimiento antes citado.



Hirugarrena. Agindu honen berri ematea EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Laugarrena. Araua egiteko eta arauaren egokitasuna eta legezkitasuna bermatzeko beharrezkoak diren azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Bosgarrena. Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bileran onartutako erabakiarekin bat etorritz. Erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartu zen.

Seigarrena. Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Tercero. Dar a conocer la presente Orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la CAE, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 LPEDCG.

Cuarto. Efectuar los estudios, informes y consultas que sean precisos para la elaboración de la norma y para garantizar su acierto y legalidad.

Quinto. Utilizar el modelo de tramitación de las disposiciones de carácter general y la aplicación informática Tramitagune, de conformidad con el acuerdo aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General.

Sexto. Proceder a la publicación activa de toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento, conforme a lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren
egunean

En Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma
electrónica.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
La consejera de Justicia y Derechos Humanos
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ